

AHATEAREN ALDARRIKAPENA


Nire familian 29.000 ahate ginen. Aitak esan zigun irteera batera joango ginela eta, ez bat eta ez bi, leku ilun batean sartu ginen.

— Utzi lekua!- esan nuen ozen.

Itsaso Barean nengoela, leku hura asko mugitzen zen. Tximistak entzuten ziren urrutian, eta beldurra nuen. Bat-batean, denok uretan sartu ginen, estu-estu denok elkarrekin.

— Ze hotza egiten duen hemen!- esaten zuten denek.

Olatuek multzotan banatu gintuzten. Nire aitak bultzatu ninduen eta nahi gabe beste bide bat hartu nuen. Urruntzen ari nintzen bitartean, ikusten nuen nire familia uharte batera gerturatzen. Galdua nintzen han, eta bakarrik nengoen. Bakardadea orduan ezagutu nuen. Baina, bat-batean, nire lagun batzuk ikusi nituen, eta haiekin elkartu nintzen. 15 ahate baino ez geunden. Urte bakoitzean ahate bat herrialde batera ailegatzen zen. 14 urte pasa ziren eta ni berriz bakarrik geratu nintzen.



Oraindik nago itsasoan, baina mikroplastiko itxuraz jantzita. Nire istorioa ez da ipuina, istripu kaltegarri baten ondorioa baizik. Nire lagun askok itsasotik zehar jarraitzen dute oraindik ere. Agian arrainen batek jango ditu. Horregatik arrain asko hiltzen dira gaur egun, gure erruarengatik.

Oraindik nago uharte bat bilatzen, baina ez dut uste lortuko dudarik, mikroplastikoa naiz eta! Seguraski hementxe hilko naiz, itsaso izoztu honetan. Baina etsi gabe nabil, biziari gogor eutsiko diot, amore eman gabe.

Ikastetxea: **UNAMUNZAGA ESKOLA** (Ribabellosa, Araba)

Taldea: **Lehen Hezkuntzako 6. maila, LH 6A taldea**

Parte hartu duten ikasle kopurua: **12 ikasle**

Arduraduna: **Josean Gil-Garcia** (LH 6Ako tutorea)

Posta elektronikoa: lh6a@unamunzagaeskola.com

Eskolako telefonoa: **945 187021**